

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun biztanleriaren ehuneko handi batek erretzen du. Zigarro-puntek arazo asko sortzen dituzte ingurumenaren kutsaduran; izan ere, erretzaile askok lurrera botatzen dituzte erretzen bukatzen dutenean, kaleak eta hiriak zikinduz.



Gure produktuak arazo hau konpondu dezake. Alde batetik, zigarro-puntak lurrera bota beharrean hor sartuko lituzkete, kaleak garbiago egongo lirateke eta zigarro-puntak ez lukete hainbeste kutsatuko. Bestetik, gure produktuak zigarro-puntaren materialak bereizten dituenek, lortutako material desberdinei erabilera desberdin eta berria eman geniezaieke. Zigarro-puntaren material plastikoa birziklatuko genuke beste produktu batzuk ekoizteko (boligrafoak, bilgarri berriak...), zigarroaren errautsa konposta edo landareei botatzeko erabiliko dugu eta kartoizko zatia birziklatu, plastikoa bezala.

Ondorioz, gure balio proposamen garrantzitsuena pertsonen bizi kalitatea hobetzea da, ingurumenaren kutsadura murriztuz baita ere. *Birzigar* makinaren eraginez, biztanleek erraz hartuko dute ingurunea zaintzen laguntzeko konpromisoa. Bere zigarroak birziklatzeko ekintza hutsarekin, eta guztion laguntzarekin, gure planeta salba dezakegu, eta, horrela, guztion bizi-kalitatea hobetu.



Oraindik ez da zigarro-muturrak jasotzeko makinarik sortu eta herritarren kexa handienetariko bat da. Horregatik, gure bezeroak, udalak edo garbitasun enpresak, produktua erosteko prest egongo dira. Nahiz eta, agian prezio altua izan, luzerako iraungo duen inbertsioa izango da. Horretaz gain, udalak azpi-kontratatzan dituen garbiketa-enpresei lana asko erraztuko genieke.

Lehiakideengandik bereizten gaituzten hainbat ezaugarri ditu. Berritasunari erreparatu, esan dugun bezala, ez da existitzen horrelako lana egiten duen produkturik eta produktu honen lana orain dela askotik dagoen behar bat asetzen du.